

# berriak Triforio -tik



araba  
álava

## Hogei urte, 1,7 milioi bisitari

Otsailean hogei urte beteko dira Santa Maria katedralak bisitariak hartzen hasi zenetik. Lehen programaren izena ez zen 'Obretan eta irekita', baina guztiz berritzailea izan zen. Izan ere, ohiz kanpokoa izan zen egiturazko arazoak zirela eta 1994. urtean itxi zen monumentu bat berriz irekitzea, eta jendeari arazoa nola konpondu nahi zen azaltzea. 'Elizgizon, soldadu eta merkatarien artean' izena eman zitzaion, eta, bost hilabetez, 1999ko otsailetik uztaiera, egon zen kartelean. Guztira, 70.000 bisitari izan zituen, arabarrak gehienak (%80).

Bi hamarkada iraungo zuten lanei ekin zitzaion, eta oraindik lan horiek aurrera doaz. Katedrala hiriko eta eskualdeko erreferentzia turistiko bihurtu nahi da, eta dagoeneko mundu osoan zabaldu den programa arrakastatsu baten hazi.



'Obretan eta Irekita' filosofiari esker, epe horretan 1,7 milioi pertsona inguruk bisitatu dute katedrala, bertan martxan ziren zaharberritze-lanak zuzenean ikusteko asmoarekin. Besteak beste, indusketak, hiletahondakinak, higatutako zutabeak eta hondatutako gangak ikusi dituzte, eta hori guztia langileek, arkeologoek, topografoek eta harginen lan egiten zuten bitartean.

Kaskoarekin ibili dira nabetik, bisitak egiteko bereziki prestatutako pasabideak erabiliz. Eta, 2002. urtean Ken Follett idazleak Santa Maria bisitatu ondoren esan zuen bezala, "beste inon ikusi ezin diren gauzak" ikusi dituzte. Orain, etorkizunera begiratu behar dugu: mantentze-lanetan eta irekita. Kontzeptu hori pixkanaka sortzen ari da katedrala hiriko espazio kultural (eta erlijiozkoa) gailen bilakatzen den heinean.

\*Santa Maria Katedrala Fundazioaren Sortzaileen Zirkuluko bazkideen fidelotasuna eskertzeko, 2019an, katedrala bisitatzen duten bakoitzean, lagun bat eraman ahal izango dute dohainik.

## Santa Maria, FITUR turismo azokan

Urtarrilaren 23tik 27ra bitartean, turismoaren arloko munduko azoka garrantzitsuenetako bat hartuko du berriz Madrilak. FITUR azokak bost egun irauten du, eta egun horietan 120.000 pertsona inguruk bisitatzen dute, bidaiatzeko aukera berriak ezagutu nahian, nazionalak zein nazioartekoak. Beste behin ere, Santa Maria katedrala Euskadiren standean egongo da. Stander hurbiltzen direnek bi hamarkadetan obretan eta irekita egon ondoren mirespena sortzen jarraitzen duen proiektuari buruzko informazioa eskuratu ahal izango dute.



## Katedralaren aterpetxea, birziklatzearen aldeko konpromisoa

Katedralaren aterpetxeak bat egin du Arabako hiriburuan birziklatzea sustatzea helburu duen kanpainarekin. Gasteizko Udalak, Ihobek, Aclimak, Ecoembesek eta Amvisak sustatu dute kanpaina. Helburua da ekimenarekin bat egin duten 38 ostatueta PET plastikozko ontzien erabilera murriztea, eta dagoeneko erabili direnak biltzea eta birziklatzea. Horrez gain, aukera berria emango zaie bizi-zikloa agortu dutenei.

Hala, beirazko 400 pitxer banatu dira, botilen ordezkari erabiltzeko eta txorrotako ura edatera animatzeko; konposta egiteko balio duten kartoizko 2.100 kutxa ere banatu dira, janari-zerbitzua eskaintzen duten ostatuak bezeroei emateko kontsumitu ez dutena (normalean, plastikozko ontziak erabiltzen dira horretarako); eta %100 birziklatutako PET plastikozko birziklatuarekin egindako bestelako materialak banatu dira, adibidez, alfonbrak edo logeletako atean jartzeko heldulekuak. Halaber, atez ateko bilketa-sistema antolatu da, eta edukiontzia banatu dira (bakoitza formatu batekin), ostatuan zaborra bana dezaten; eta paperontziak ere bai, bilgarri txikiak botatzeko (ostatuko espazio komunean jarri daitezke).



## Kultura ondarearen etorkizuna



Abenduan, Europa biltzar-jauregiak 'Kultura ondarea, iraganean eta etorkizunean berritzen' biltzar europarra hartu zuen. Santa Maria Katedrala Fundazioak antolatu zuen biltzara, CREADIS3 proiektuaren esparruan, eta kultura ondarearen arloko berrikuntzei eta etorkizunari buruz eztabaidatu zuten bertan Europako zenbait adituk. Kultura ondarearen inguruko adierazpen europarrek kultura eta kulturarteko aniztasuna sustatu nahi dute, bai eta ondarearen kontserbazioa eta zaintza sustatu nahi ere, eta askotariko herritarrek kultura ondareaz gozatzea bilatzen dute.

Esparru horretan, Eusko Jaurlaritza buru duen CREADIS3 proiektuak bultzatu zuen topaketa hau. Hainbat herrialdeetako hizlari nabarmenak egon ziren biltzarrean (hala nola, Portugalekoak, Finlandiakoak, Erresuma Batukoak, Suediakoak, Frantziakoak eta Espainiakoak), eta kultur ondarearen inguruko hainbat ikuspegi jorratu zituzten, ekosistema sozial eta sortzailatzat hartuta. Ondarearen kontzeptua aztertzeaz gain, etorkizuneko gobernamentu-eredu berriei, teknologiak txertatzeko estrategia berriei (digitalizazioa) eta gizarteak parte hartzeko modu berriei buruz eztabaidatu zen biltzarrean. Horrez gain, Gasteizko Manifestua sustatu zen. Dokumentuak zortzi gako ditu, kultur ondarearen aldeko agenda berritzailea bultzatzeko.